

Ane Aramburu Santas

A maila • 2 saria

Ane Aramburu deitzen didate 2002ko uda hasi zenetik, ekainaren 20tik hain zuzen ere. Agian horregatik gustatzen zait hainbeste uda. Horregatik, eta bertan nahi adina irakurtzeko astia dudalako. Ez dut ezer apartekorik esango nire buruaz. Emandako liburuko zatitxo honetan irakurtzera gonbidatu nahiko zintuzket. Irakurtzeko, pentsatuz, aske izanez, mundua ezagutuz etxetik. Abentura amaiezinak daude apaletan, gizakiaren pentsamenduak orrien artean. Irakurtzearen ondorio hasi nintzen istorioak sortzen ni ere. Eta ez dago nire burua eta nire ingurua ezagutzeko modu hobeagorik, hauek irakurrita baino. Hemen duzue nire ondorioetako bat, nire deskribapen txiki bat.



GERRAK

Hirurogeita bi udaberrik sorbaldetan nabarmen pisatzen zutela otu zitzaion Manueli, egunsentiko lehen izpiak ikusteko begiak irekitzen zituen bitartean. Izaren goxotasunez desgogara urrundu eta oheburuan eserita ezerezari begira geratu zen, goizero-goizero egiten zuen bezalaxe. Honela zegoela, emeki-emeki bere eskuari laztan bat bezala eutsi zitzaion berotasuna sentitu zuen. Ohearen beste aldera begiratu eta bere Maritxu ikusi zuen, begiak itxita irribarre txikia ezpainetan margotua zuela. Baliteke haien arteko erlazioa beraiekin batera zaharkitu izana, baina Maritxuk behin gorputz eta arima eskaini zizkion Manueli, bertatik mundua beste begi batzuekin ikusteko aukera izan zezan, eta Manuelek ez zuen ezagutzen mundu ederragorik ordudanik. Isilean makurtu eta bekokian musu bat emanez eskertu zion emakume bat maitatzea zer den erakutsi izana.

Ordiziako kale mortuetan okina besterik ez zuen agurtu. Manuel eta okinak duela 40 urtetik goizero-goizero elkar ikusten zuten arren, burua makurtu besterik ez zioten egiten elkarri, hitz erdirik esan gabe. Kalean behera abiatu eta Plaza Nagusiaren iskin batean zegoen lokal txiki baterantz gerturatu zen. Erakusleihu zabalak zituen denda hark, eta goian errotulu berde batean irakurtzen zen: “Iraola eta ondorengoak-Elikagai denda”.

Manuelek irribarre egin zuen giltza sarrailan sartzearekin batera. Bere aitona Aitorrez oroitu zen, denda hura sortu zuenaz, eta bere bibote handiarekin imajinatu zuen mantala jarrita atean bertan bezeroen zain, Manuel txikiarekin jolasten zuen bitartean.

Aitona Aitor, 17 urte besterik ez zituela, karlisten armadan erroldatu eta Zumalakarregi jeneralaren agindupean, gaztelania ulertzen ez bazuen ere, “Por Dios, por la Patria y el Rey”, ahotsa galdu arte abestu ohi zuen gaztea zen. Gerra bukatu ostean, irabazitako guztia kapitainak sorbaldan emandako kolpe lagunkoia, bilobari kontatuko zizkion istorio gordinak eta betirako berarekin ibiliko zen herrentasuna izan ziren. Baina horren guztiaren gainetik,

bere barne-barneko ilunean, etsaiek berak bezalaxe bizitza bat zuten gizonak zirela zein azkar ahaztu zuen lezioa eraman zuen betiko. Berriz jaioterrira itzultzean, amona Mirenekin ezkondu, denda txikia mantendu eta umeak egiteari ekin zion. Gudua egiteko modu hura hobea irudituz zitzaien, antza.

Manuelek atea zeharkatu orduko etxean zegoela jakin zuen. Leku hartan soilik ulertzen zuen bere gorputza inguruaren zati. Zokoetan ezkututzen ziren usainak ziren bere gorputzeko usain berberak, apaletako egurrak ziren bere hezurak, giroko lasaitasun eta beroa, bere arima. Goizero legez, produktuak miatzeari ekin zion, mantala janzten zuen bitartean: Tolosako babarrunak, Ibarrako piperrak, Aranburu baserritik ekarritako fruta eta barazkiak, Getariko txakolina... Dena Manuelek berak aukeratutakoa. Askotan emazteak produktuak bera baino mimo handiagoz tratatzea leporatzen zion.

Jada goizeko zortziak zirela gogorarazi zioten elizako kanpaiek, eta ateko kartelari buelta eman zion lokala irekita zegoela adierazteko. Salmahaiaren atzealdean ipini zen, urtez entseatutako jarrera berberarekin, bezeroak noiz etorriko ote ziren zain. Ez zen, ordea, inor sartu. Han bertan zuen aulkian eseri eta hizki-zopak egin zituen. Aspaldian hori eta pentsatu besterik ez zuen egiten, egunak joan egunak etorri, parkeetako bankuetan esertzen ziren aitonek bezala. Behintzat etxean zegoela pentsatzeak kontsolatzen zuen.

Goizeko hamarrek aldera ipurdia inurritua eta bizkarrean sekulako mina zuela ohartu zen. Lekutan zituen eskolan sei orduz eserita igarotzen zituen garaiak. Altxatzea gehiago kostatzen zitzaionez (aspaldian belaun batean artrosia antzeman zioten, eta beste belauna berdin hasi zitzaionean, txantxetan solidaritate ekintza hunkigarria zela esaten zuen), bi eskuak salmahaian jarri, eta indarra eginez zutitu zen. Kristalera hurbildu eta kalera begiratu zuen. Asteazkenetan erakusleihoa denda barrutik kanporantz zegoela esaten zuen Manuelek, azokan zebiltzan pertsona guztiak lasaitasunez begiratzeko unea izaten baitzuen. Eta zinez pertsonaiei begiratzeko eskolako liburu guztietan baino gehiago ikasi zuela.

Postuetako batean Pantxike andrea ikusi zuen, aspaldiko laguna. Gaztetan, artean Manuel salmahaira ozta-ozta iristen zela, Pantxike neskato gaztea etortzen zitzaaien dendara 6 litroko txanbilarekin, ardoz betetzera. Aitona Aitorrek gustura hartzen zuen neska alai eta sana, eta Manuelek txanbila betetzen zuen bitartean, aitona eta Pantxike berriketan aritzen ziren, gero ordaindu eta hurrengo astera arte agurtuz. Egundoko sorpresa hartu zuen aitona egun batean, bi txanbil, bat Pantxikerena, bestea berea, ondoz ondoko zituela eta 6 litrokoa ez, eta 8koa zela ohartu zenean. Pantxike azokan erosketak egiten ari zela profitatuz, txanbila lurrera bota eta mila pusketetan txikitu zuen. Pantxike txanbilaren bila itzultzean eta lurreko kristal guztiak ikustean arpegia zurbildu zitzaion.

-Barkaidazu Pantxike! -hasi zitzaion aitona- Deskuiduan Manueli txanbila erori eta begira... Benetan sentitzen dugu. Baina lasai, 6 litroko beste txanbil hau emango dizut, neurea, eta, arren, barkatzeko eskatzen dizut.

Pantxikek sekulako oihuak egin zituen eta txanbila besazpian hartuta alde egin zuen, masailak sutan zituela. Aitona Manueli irribarre egin zion, kristal bakoitza banan-banan jasotzen zuten bitartean. Orduan ikasi zuen Manuelek bazeudela isilean irabazten ziren gerrak.

Pantxike postutik aldendu eta Manuel eskuarekin agurtu zuen, begira harrapatu zuenean. Manuelek irribarre egin eta amona hura kalea pixkanaka-pixkanaka igotzen ikusi zuen. Urteak denontzat pasatzen dira.

Dendako atea irekitzen entzun eta urduritu egin zen. Arrapaladan abiatu eta Maritxuri atea irekitzen lagundu zion. Dendaren atzeko aldean zuten mahaian bazkaldu zuten egunero bezala, isilean, ondotxo ezagutzen diren bi pertsonak egiten duten bezalaxe. Jaso ondoren, Manuelek hizki-zopekin jarraitu zuen, baina Maritxuk, geldirik egoten ez zekien emakumeak, erratza hartu eta hauts arrastorik ez zuen lurra ekortzen hasi zen. Manuel begira geratu zitzaion. Erratzari eskuineko eskuarekin eusten zion, eta ezkerrarekoarekin indarra egin. Bi pauso, erratza pasa. Bi pauso, erratza pasa. Beti tarte berarekin, beti perfektu. Bihotzez ikasitakoa, dantza. Dendako ohol batean, ordea, konpasa galdu zuen. Manuelek irribarre egin eta Maritxu erratza pasatzen ari zen tokian zegoen tranpolaz oroitu zen, aspaldian erabiltzen ez zen trastelekura jaisteko atea zena. Bertan aitona estraperloan Frantziatik ekarritako kafea eta Ducadoak gordetzen zituen, Guardia Zibilen esku luzeetatik gordetzeko. Ondo baino hobeto gogoratzen zituen garai haiek, dendan artean kalez jantzita zetorren Gurdia Zibila inspektzioa egitera zetorrelako zurrumurrua zabaltzean, produktu ilegal guztiak aitaren batean behera jaisten zituztenekoak. Gerraren azpijokoak, aitona esanetan. Eta ez hori bakarrik, aspaldiko Ordiziako festetan, uztailako gauak baino beroago elkartzen ziren Manuel eta Maritxu gazteak bertan, eta legez kanpo zeuden gauzen artean dendako trasteleku iluna argitzen zuten, bat bihurtuz.

Aurpegian sentitu zuen laztanak esnatu zuen aulkian, hizki-zopa magalean zuela. Maritxu inguruan zuen, gauzak jasotzen. Kanpoko zeru iluna ikustean alde egiteko unea zela nabaritu zuen.

-Ez da inor sartu, Manuel. Goizero denda irekitzea jasotzen duguna baino diru gehiago kostatzen zaigu.- Maritxuren errukior begiek so egin zioten.

Begietan muxu bana eman zion gizonak, barnean emakumeak erabilitako plurala eskertzen zuen bitartean.

-Badakit. Badakit.

Hura zen ba, Manuelen gerra berria. Tristuraz oroitzen zituen denda jendez gainezka zegoen egunak, bezeroak lagunak zirenekoak, kalkulagailua ez, eta buruz gehiketa amaiezinak egiten ikasi zuenekoak. Egun horietako batean ezagutu zuen Maritxu, zalaparta haren artean, apal hitz egin eta mundu guztia isiltzean, berea izango zela zin egin zuenean. Egun horietan ikasi baitzuen aitona gabe aurrera jarraitzen, aldaketei ohitzen, injustizia burua gora jasaten. Baina aspaldian ez zen inor sartzeko dendan. Herriaren kanpoaldean lehen supermerkatua ireki zutenetik, hain zuzen. "Garaiak ez dira onak, Manuel, gauza merkeak behar ditugu", "Benetan sentitzen dut, Manuel", "Hobe zenuke denda itxi, garaia duzu". Baina nola itxi bizitza oso bat? Nola ukatu gordetako oroitzapen guztiak?

Hurrengo egunean ez zuen denda ireki. Ez zuen berriro irekiko. Berandu esnatu eta urkara doan gizonak bezala denbora luzatzen saiatu zen. Jantzi eta mantso-mantso gosalduek ondoren, supermerkatua abiatu zen.

Jendez gainezka zegoen ordurako, baina laster deskubritu zuen bere dendako jendetzarekin zer ikusirik ez zuela. Hango pertsonak bata besteari begiratu gabe korrika egiten zuten, presaka eta noraezean, Manuelek ulertzen ez zuen txapelketa ikusezin batean. Ez zuen ba, inork agurtu ateak zeharkatzean. Jakin gabe, frutaren sailean sartu zen, eta bertako sagarrak ikustean aho zabalik geratu zen. Ez zituen inoiz ere halako sagarrak ikusi: gorriak, distiratsuak, arima bakean jartzen zuen moduan antolatuta zeudenak. Han lan egiten zuen neskak batek telazko poltsak ez, eta plastikozkoak bakarrik zituztela esatean, amore eman eta plastikozko poltsa ziztrina goraino bete zuen. Ordaintzera zihoala, ilara luzez josita zeuden hainbeste kutxa

ikustean ulertu zuen hura irabaz ezin zezakeen gerra zela. Gizarte modernoa Manuelen aurka. Gizarajoak ordaindu, eta ateratzean, berriro ere, ez zuen inork agurtu.

Etxean ireki zuen poltsa, eta kontu handiarekin aukeratu zuen sagar bakarra. Eskuan zuela, distira galdua zuela ohartu zen, baina koloreak bertan jarraitzen zuen, hura jatera gonbidatuz. Ahoan ipini eta mihian argizari zaporea sentitu zuen. Kosk egitea kostatu eta une labur batez fruta jaten ari ote zen pasatu zitzaion burutik. Behingo zatia puskatu eta eguneko bigarren ezustea hartu zuen. Sagar hark ez zuen zaporerik. Ezin ziren Maritxuk Aranburu baserriko sagarrekin egiten zituen sagar-tartak egin, ezta umeek jateko poteak prestatu ere. Negar malkoen artean ur bihurtutako sagarra begiratzea lortu, eta itxurakeria hark guztiak berarekin akabatu zuela irenstea, sagarra zintzurretik behera pasatzea baino gehiago kostatu zitzaion. Etsipena lehen aldiz dastatu zuen Manuelek.

Sagar poltsa guztia hartu, eta zakarrontzira bota zuen.